



## **SOTERRATUAK ITXI ETA ALTERNATIBA ADOSTUA BILATZEKO MOZIOA (ZUZENDUTA)**

Lasarte-Oriako soterratuek sortzen dituzten arazoei (arratoiak, argi eza kaleetan, usainak, kostu altuak...) aurre egiteko Lasarte-Oriako EH Bildu Udal Taldeak soterratuak itxi eta alternatiba adostua bilatzeko alderdi guztiei luzatutako proposamena.

Herriko auzo desberdinetan argiak gauez itzalita daudela salatu izan dugu bai herritarrek sare sozialetan eta baita EH Bildu eta ADLOP-eko udal taldeek ere dagokion Batzordean. Honen aurrean, PSO Eren udal ordezkariak emandako erantzuna 2015eko azaroa eta 2016ko urtarrileko batzordeetan, laburbilduz, ondorengo izan da:

“Herrian argiarekin ditugun arazoak arratoiak sortzen dituzte, argiaren kableak jaten baitituzte. Eta era berean, arratoi hauek hondakinak biltzeko herrian ditugun soterratuek sortzen dituzte”.

Argiaren arazoaz gain, soterratuek hainbat arazo eta gastu sortzen dituzte herritarrongan:

- 1.-Soterratuek bakarrik sortzen dituzten arratoiden kontra egin beharreko tratamenduen gastua: 1.800 euro
- 2.- Soterratuak sarri izaten dituzten matxuren ondorioz, udalak, 70 interbentzioetan, 46.557,34 euro gastatu behar izan zituen 2014. urtean. 2015ean, aldiz, 10.781,84 euro izan ziren, 11 interbentziotan, udal brigadak 2015eko konponketa gehienak bere gain hartu arren.

3.- Soterratuek inguruan izaten duten zikinkeria eta ondorioz kaleak zikinak egotearen ordaina, eta askotan herritarrek jasan beharreko usainak.

4.- Soterratuetan sortzen diren arratoiak kableatua jaten duten ondorioz, egun bat bai eta bestea ere argirik gabe egoten gara herriko hainbat auzotan.

5.- Berziklatzeko aukerarik ematen ez duten soterratuak ere egoteak, berziklagarriak diren hondakin asko ez berziklatzeko ematen duten aukera.

Arazo guzti hauek herrian ditugula alderdiok jakitun izanda, EHBilduk argi dauka herritarrontzako onurak ekarriko dituen alternatibak behar ditugula: Alde batetik, herritarrei hondakinak berziklatzeko aukera eman behar zaigu eta honez gain, lasarte-orian soterratuak itxi beharko lirateke, hauek ematen dituzten aipatutako arazoak, eta udalak herritar guztion diruarekin ordaindu beharreko gastuak ekiditzeko. Beraz, udalak alternatibarako bideak jarri behar ditu herritarrekin ere adostuta. Horregatik, herriarengan eta herritarrengan arazorik sortuko ez dituen alternatibak denon artean eta herritarrekin adostua izatea beharrezko ikusten dugu.

Honegatik guztiagatik, Lasarte-Oriako udalbatzarrak ondoko hauek adosten ditu:

1.- Herri honetan berziklatze tasak igo ahal izateko bitartekoak jartzen eta gaia lantzen behingoz hasi dadila eskatzen diogu udal gobernuari. Eta lanketa horrekin batera soterratuak itxi eta herritarroi alternatiba eskaintzea. Alternatiba honen ondorioz, orain arte argiarekin, arratoiekin eta soterratuekin ditugun arazoak ekiditeko, herrian benetako baliabideak jartzea eskatzen dugu eta ez milaka euro alperrik gastatuz arazoari partxeak soilik jartzea.

2.- Lanketa honetan herritarron, herriko elkarteen eta udaleko alderdi guztien ekarpenak eta proposamenak jasotzea eskatzen dugu, denon artean irtenbide egoki bat adosteko.

Lasarte-Orian, 2016ko martxoaren 4ean

EHBildu Udal Taldearen izenean